




Ea



ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Armarri ebakia: 1., gorriz zilarrezko eraikina; 2., urdinez, zilarrezko zubia uhin urdin eta zilarrezkoen ganean. Orla berdea.

DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

Escudo cortado: 1º, en campo de gules, edificio de plata y 2º, de azur, un puente de plata, sobre ondas de azur y plata. Orla de sinople.

AITAMEN HISTORIKOA

Eako itsasadarraren ertzeko arrakala batean koaternario zaharrekoko fosilen biltegia aurkitu da, eta fosilok “*Equus caballus fossilis*”en taldean sailkatu dira. Ean baegoan armaetxe bat, Bedaronan, hain zuzen be. Simancaseko artxiboan dagoen agiri baten arabera, Bizkaiko jaunek (Errege Katolikoek) gotorretxeak eraikitzeke debekua ezarri eben arren, Ean gotorretxe bi egiten ebiltzan; bata, Ortun García de Arteagak eta bestea, zubietarrek. Agiria 1492ko bagilaren 2koa da, eta bertan udalerrria aitatzetakoan Hean izena erabili zan. Eako auzunea askozaz barriarria da; *Diccionario General de Historian* idatzitakoaren arabera XVI. mendean sortu zan eta hiztegi horretan honakoa irakurri daikegu: “*Compónese de dos barrios formados de 300 años a esta parte, el uno en territorio de Ereño, y el otro en el de Natxitua, a las cuales pertenecen, y divididos por una ría que en su embocadura forma un puertecillo de muy poco fondo. Tendrán entre ambos unas 50 casas, cuyos moradores se ocupan en la pesca del atún, merluza, besugo, sardina etc.*”




RESEÑA HISTÓRICA

En una grieta de la orilla de la ría de Ea se descubrió un depósito de fósiles, catalogados como “*Equus caballus fossilis*”, del cuaternario antiguo. Ea poseyó una casa armera en Bedarona. Según doc. del archivo de Simancas fechado el 2 de junio de 1492, pese a la prohibición por parte de los señores de Bizkaia de que se construyeran casas fuertes, en Ea se estaban alzando dos, una por Ortun García de Arteaga y otra por el linaje de Zubieta. En dicho documento la localidad aparece como Hean. La barriada es sin embargo de población más reciente. *El Diccionario General de Historia* sitúa su formación en el siglo XVI: “*Compónese de dos barrios formados de 300 años a esta parte, el uno en territorio de Ereño, y el otro en el de Natxitua, a las cuales pertenecen, y divididos por una ría que en su embocadura forma un puertecillo de muy poco fondo. Tendrán entre ambos unas 50 casas, cuyos moradores se ocupan en la pesca del atún, merluza, besugo, sardina, etc.*”

IKURRIÑA

Deskribapena: bandera zuria erdian armarrria dauala.



BANDERA

Descripción: bandera blanca, con el escudo en el centro.